* Instalazioa erabiltzeagatik ordaindu behar den prezioa eguneko, jaialdia prestatzeko eguna edo egunak barne.

* "Egun erdi" terminoak 8:00etatik 15:00etara edo 15:00etatik 22:00etara erabiliko dela esan nahi du.

Amurrio, 2013ko apirilaren 11.– Alkatea, JOSUNE IRABIEN MARIGORTA.

## AMURRIO

**1969**

**Behin betiko onartzea Euskara ikasteagatik ematen diren Beken Oinarriak arautzen dituen Araua.**

Ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu 2013ko Aurrekontu Orokorrari behin-behineko onarpena emateko 2013ko martxoaren 4an Udalbatzak hartu zuen erabakiaren aurka; ondorioz, behin betiko onartutzat jotzen da, otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 15.1 artikuluan ezartzen duenari jarraituz.

Dirulaguntzen oinarri arautzaileak Aurrekontua Gauzatzeko Udal Arauaren VII. kapituluan zeuden jasota. Hona edukia, hitzez hitz:

### 30. OINARRIA.- EUSKARA IKASTEAGATIK EMATEN DIREN BEKEN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN ARAUA

1. LEGE ETA EKONOMIA ESPARRUA

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, Administrazioak pertsona publiko zein pribatuei egiten dizkien "diru emate" moduan definitzen dira dirulaguntzak, betiere, baldintza hauek beteta:

Diru ematea onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe egitea.

Diru ematea lotuta egotea helburu bat lortzeari, proiektu bat gauzatzeari, jarduera bat egiteari, portaera berezi bat izateari, izan horiek dagoeneko eginak edo izan gerora egitekoak, edo egoera bat gertatzeari. Onuradunak zehaztutako betebehar formal zein materialak bete beharko ditu.

Proiektuak, ekintzak, jokaerak edo finantzaturiko egoerak hauxe izatea helburu: erabilera publikoko, interes sozialeko edo xede publikoko jarduera bat sustatzea.

38/2003 Legeak 9. artikuluan ezartzen duenez, dirulaguntzak eman aurretik oinarri arautzaileetarako arauak onartu behar dira legeak ezarritako baldintzen arabera. Oinarri hauen xedea da euskara ikasteagatik ematen diren beken esparrua arautzea, Amurrioko udalerrian euskararen ezagutza sustatzeko.

2. BETEKIZUNAK ETA BALDINTZA OROKORRAK

2.1. Amurrioko Udalak Amurrion erroldatuta dauden eta Euskara Zerbitzuaren bitartez euskalduntze prozesu batean sartuta dauden pertsona guztiei emango die beka.

2.2. Bekak egindako ikastaroen arabera onartuko dira, eta ordaindutako matrikularen ehuneko 50 diruz lagunduko da. 400 ordu edo lau hilabetetik gorako barnetegietako ikastaroen kasuan, matrikularen ehuneko 75 diruz lagunduko da, betiere, "5. urratsetik" gorako mailak egiaztatzen badira.

2.3. Norberak bere kabuz ikasteko ikastaroak ere diruz lagunduko dira, betiere, HABEk homologatutako zentroetan egiten badira, bai eta ezagutza maila hobetzea eta familiako hizkuntza ohituren aldaketa erraztea xedetzat duten familia ikastaroak ere.

2.4. Gehienez ere, 1.961,06 euroko beka finkatzen da pertsona baten euskalduntze prozesu osorako.

3. ONURADUNEN DEFINIZIOA

3.1. Euskara ikasteagatik ematen diren beken onuradunek hurrengo baldintzak bete beharko dituzte:

Amurrioko udalerrian erroldatuta egotea.

* Precio por día de disponibilidad de la instalación, incluyendo el o los de preparación del festejo.

* El término "medio día" se establece de 8:00 a 15:00 horas o bien de 15 a 22 horas.

Amurrio, 11 de abril de 2013.– La alcaldesa, JOSUNE IRABIEN MARIGORTA.

## AMURRIO

**1969**

**Aprobación definitiva de la Norma Reguladora de las Bases para la concesión de Becas por el estudio del euskera.**

Contra el acuerdo plenario adoptado el 4 de marzo de 2013, por el que se efectuó la aprobación provisional del Presupuesto General para el ejercicio 2013, no se ha presentado reclamación alguna, por lo que se considera definitivamente aprobado, a tenor del artículo 15.1 de la Norma Foral 3/2004, de 9 de febrero, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava.

Las Bases reguladoras de las Subvenciones venían recogidas el Capítulo VII de la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria, con el siguiente contenido literal:

### BASE 30.- NORMA REGULADORA DE LAS BASES PARA LA CONCESIÓN DE BECAS POR EL ESTUDIO DEL EUSKERA

1. MARCO LEGAL Y ECONÓMICO

La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones define las subvenciones como las "entregas dinerarias" de la Administración a personas públicas o privadas, cuando se dan los siguientes requisitos:

Que la entrega se realice sin contraprestación directa de los beneficiarios.

Que la entrega esté sujeta al cumplimiento de un determinado objetivo, la ejecución de un proyecto, la realización de una actividad, la adopción de un comportamiento singular, ya realizados o por desarrollar, o la concurrencia de una situación, debiendo el beneficiario cumplir las obligaciones materiales y formales que se hubieran establecido.

Que el proyecto, la acción, conducta o situación financiera tenga por objeto el fomento de una actividad de utilidad pública o interés social o de promoción de una finalidad pública.

El artículo 9 de la mencionada Ley 38/2003 establece que con carácter previo al otorgamiento de las subvenciones deberán aprobarse las normas que establezcan las bases reguladoras de concesión en los términos establecidos por la Ley. El objeto de las presentes bases es regular el marco para la concesión de becas por el estudio del euskera, con el objetivo de fomentar el conocimiento del euskera en el municipio de Amurrio.

2. REQUISITOS Y CONDICIONES GENERALES

2.1. El Ayuntamiento de Amurrio, concederá becas a todas las personas empadronadas de Amurrio que estén inmersos en un proceso de euskaldunización a través de su Servicio de Euskera.

2.2. Las becas se aprobarán de acuerdo a los cursos realizados y se subvencionarán el 50 por ciento de la matrícula abonada. En el caso de cursos en régimen de internado superiores a 400 horas o cuatro meses, se subvencionarán el 75 por ciento de la matrícula, siempre que se acrediten niveles superiores a "5. urratsa".

2.3. Los cursos de autoaprendizaje también serán subvencionados siempre y cuando se realicen en centros homologados por HABE, así como los cursos familiares que tienen como objeto aumentar el nivel de conocimiento y facilitar el cambio del hábito lingüístico familiar.

2.4. Se establece una beca máxima de 1.961,06 euros para todo el proceso de euskaldunización de una persona.

3. DEFINICIÓN DE LAS PERSONAS BENEFICIARIAS

3.1. Las personas beneficiarias de becas por el estudio del euskera deberán reunir las siguientes condiciones:

Estar empadronado o empadronada en el municipio de Amurrio.

- Euskara eskolen ehuneko 80ra edo gehiagora joan izana egiaztatzea.

16 urte beteta edukitzea.

4. EUSKARA IKASTEAGATIK 2013AN EMANGO DIREN BEKEN GEHIENEKO ZENBATEKOA ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

4.1. 2013ko ekitaldirako esleitutako beken zenbateko osoa ezin izango da 17.840 eurotik gorakoa izan. Epe barruan aurkeztutako eskaerak kontuan hartuta, diruz lagundu beharreko gehieneko kopuruek dirulaguntzen aurrekontu esleipena baino gehiago egiten badute, bana-banako gehieneko zenbatekoak behar besteko ehunekoan murriztuko dira, aipatutako aurrekontu esleipenarekin ordaindu ahal izateko.

4.2. Eskaerak eta agiriak aurtengo urriaren 1etik 31ra bitartean aurkeztu beharko dira Amurrioko Udaleko Erregistro Orokorrean.

4.3. Agiri hauek aurkeztu beharko ditu onuradunak:

- Euskara ikasteagatik beka jasotzeko eskaera orria.
- Egindako ordainketaren frogagiria.

Kasuan kasuko euskaltegiak egindako bertaratze ziurtagiria.

Eskuratutako dirulaguntzarekin eta eska daitezkeen beste batzuekin behar baino finantzazio gehiago eskuratu ez dela adierazten duen zinpeko aitorpena.

Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia eta hirugarrenaren alta orria behar bezala beteta, beka lehenengo aldiz eskatzen bada edo zenbatekoa beste kontu korronte batean sartzea eskatzen bada.

5. LAGUNTZAK IZAPIDETZEA

5.1. Udaleko Euskara Zerbitzuak izapidetuko ditu oinarri hauen bidez araututako beka eskaerak, eta organo eskudunari proposatuko dio, hala badagokio, onartzeko.

5.2. Amurrioko Udaleko Euskara Zerbitzuan eskuratu ahalko dira 4.3 klausulan adierazitako hurrengo agiriak:

- Euskara ikasteagatik beka jasotzeko eskaera orria.
- Zinpeko aitorpena.
- Hirugarrenaren alta orria.

Honako hau argitaratzen da otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 15.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Aurrekontu Orokorraren eta aipatutako oinarri arautzaileen behin betiko onarpenaren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da jurisdikzio horretako arauek xedatutako era eta epeetan, aipatutako foru arauak 18. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Amurrio, 2013ko apirilaren 5a.– Alkatea, JOSUNE IRABIEN MARIGORTA.

- Acreditar una asistencia a las clases de euskera igual o superior al 80 por ciento.

Tener cumplidos los dieciséis años.

4. IMPORTE MÁXIMO DE BECAS POR EL ESTUDIO DEL EUSKERA EN EL 2013 Y DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

4.1. La cuantía total de las becas adjudicadas para el ejercicio 2013 no podrá ser superior a los 17.840 euros. En el caso de que; de acuerdo con las solicitudes presentadas en plazo, el total de las cuantías máximas a subvencionar superen la consignación presupuestaria existente al efecto, las cuantías máximas individuales serán minoradas en el porcentaje preciso para que las mismas puedan ser cubiertas con la mencionada consignación presupuestaria.

4.2. La solicitud y documentación se debe presentar entre el 1 y el 31 de octubre del presente año en el Registro General del Ayuntamiento de Amurrio.

4.3. La documentación a aportar por el o la beneficiaria es la siguiente:

- Impreso de solicitud de la beca por el estudio del euskera.
- Comprobante del pago efectuado.

Certificado de asistencia emitido por el euskaltegi correspondiente.

Declaración jurada que recoge la no obtención de sobre financiación alguna con la subvención solicitada y otras a las que se pueda acoger.

Fotocopia del Documento Nacional de Identidad y la hoja de alta de tercero debidamente cumplimentado si se solicita la beca por primera vez o si se solicita que el importe se ingrese en una nueva cuenta corriente.

5. TRAMITACIÓN DE LAS AYUDAS

5.1. El servicio municipal de euskera será el encargado de tramitar las solicitudes de becas reguladas en las presentes Bases y proponer al órgano competente su asignación, si procede.

5.2. Se podrán adquirir los siguientes documentos señalados en la cláusula 4.3 en el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Amurrio:

- Impreso de solicitud de beca por el estudio del euskera.
- Declaración jurada.
- La hoja de alta de tercero.

La presente publicación se realiza en virtud del artículo 15.3 de la Norma Foral 3/2004, de 9 de febrero, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava.

Contra la aprobación definitiva del Presupuesto General y de las citadas Bases reguladoras podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en la forma y plazos que establecen las normas de dicha jurisdicción, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 18 de la mencionada Norma Foral.

En Amurrio, a 5 de abril de 2013.– La alcaldesa, JOSUNE IRABIEN MARIGORTA.

## BURGELU

1974

### Behin betiko onartzea 2013ko aurrekontu orokorra

Ez da inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu 2013ko aurrekontu orokorrari hasierako onarpena ematen dion erabakiaren aurka. Beraz, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arau Orokorrak 15.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, aurrekontu hori behin betiko onartu da. Hona hemen kapituluka laburtuta:

GASTUEN EGOERA

| KAPITULUA | ZENBATEKOA |
|---|---|
| I.- Langile gastuak | 128.500,00 € |
| II.- Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea | 292.085,00 € |
| III.- Finantza gastuak | 0,00 € |

## ELBURGO

1974

### Aprobación definitiva presupuesto general 2013

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 15.1 de la Norma Foral 3/2004, de 9 de febrero, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava, y no habiéndose formulado reclamaciones ni observaciones de ningún tipo contra el acuerdo de aprobación inicial del Presupuesto General para el ejercicio de 2013, dicho Presupuesto queda definitivamente aprobado, con el siguiente resumen por Capítulos:

ESTADO DE GASTOS

| CAPÍTULO | IMPORTE |
|---|---|
| I.- Gastos de Personal | 128.500,00 € |
| II.- Compra de Bienes Corrientes y Servicios | 292.085,00 € |
| III.- Gastos Financieros | 0,00 € |